

Ordiziako Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamabosteko ekainaren 13ko 12:00ak direnean. Idazkariak jakinarazi du bilkura honen helburua Udala osatzea dela, Hauteskunde Orokorren 5/85 Lege Organikoaren 195.1 artikulua eta hark izan dituen aldaketek, eta orobat Tokiko Erakundeen Antolakuntzarako eta Funtzionamendurako Araudiaren 37.1 artikulua ezarritakoari jarraiki. Hauxe da, honenbestez, gai-zerrenda:

- Udalbatza Osatzea.
- Alkatea aukeratzea eta, hala badagokio, karguaz jabetzea.

Idazkari jaunak bilkurari hasiera eman ondoren, ekainaren 19ko Hauteskunde Araubide Orokorren buruzko 5/1985 Lege Organikoaren –ondorengo zenbait Lege Organikok aldatu dutena– 195.2 artikulua ezarritako Adineko Mahaia eratu da. Hartara, hauexek dira Adineko Mahaiko kideak: BELEN MAIZA URRESETARAZU andrea, adinez nagusia den kidea eta bertako lehendakaria; eta IZARO INTSAUSTI ZINKUNEGI andrea, kide gazteena; eta IKER ROCANDIO ETXEBERRIA Idazkaria, Udal Idazkaria dena.

Ondoren, zinegotzi hautetsien nortasuna bermatzen duten egiaztagiri guztiak irakurri ditu Lehendakariak.

Mahaiko kideek egiaztatu dute bat datozela bere garaian Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak Udal honi bidali zizkion egiaztagiriekin eta aurkeztu dituzten nortasun agiriekin.

Zinegotzi hautetsiek banan-banan hartu dituzte beren zinegotzi-eserlekuak.

1. Udalbatza Osatzea. Jarraian, bilkura honetara Zinegotzi hautetsi guztiak bertaratu direnez, eta, beraz, legezko gehiengo absolutua betetzen denez, Adineko Mahaiko Lehendakariak adierazi du Mahaiko Idazkariak zinegotzi hautetsien agintza hartuko duela, legeak kargu eta funtzio publikoetarako ezartzen duen formula erabilita.

EAJ/PNVko zinegotzi hautetsiak, ondorengo jaun-andreak: Jose Miguel Santamaría Ezeiza, Maria Angélica Moreno Heras, Arantxa Fernandez Alvaredo, Bittor Iñaki Bolinaga Alzelai, eta Jose Ignacio Iturrioz Gotor, zin egin dute.

BILDUKo zinegotzi hautetsiak, ondorengo jaun-andreak: Igor Eguren Izagirre, Belén Maiza Urrestarazu, Adur Ezenarro Agirre, Izaro Intsausti Zinkunegi eta Jon Ander Caballero, zin egin dute.

ORDIZIA ORAINeko zinegotzi hautetsiak ondorengo jaun-andreak: Mila Sukia Galparsoro eta Antxon Sanz Lecuona, zin egin dute.

PSE-EE(PSOE)ko zinegotzi hautetsia den Iñaki Dubreuil Churruca jaunak zin egin du.



Hartara, Mahaiko Lehendakariak osatutzat eman du Udalbatza, honako zinegotzi hauekin:

1. JOSE MIGUEL SANTAMARIA EZEIZA
2. MARIA ANGELICA MORENO HERAS
3. ARANTXA FERNANDEZ ALVAREDO
4. BITTOR IÑAKI BOLINAGA ALZELAI
5. JOSE IGNACIO ITURRIOZ GOTOR
6. IGOR EGUREN IZAGIRRE
7. BELEN MAIZA URRESTARAZU
8. ADUR EZENARRO AGIRRE
9. IZARO INTSAUSTI ZINKUNEGI
10. JON ANDER CABALLERO ZUBELZU
11. MILA SUKIA GALPARSOTO
12. ANTXON SANZ LEKUONA
13. IÑAKI DUBREUIL CHURRUCA

Alkatea aukeratzea

Idazkari jaunak bertaratu koei adierazi die, ekainaren 19ko Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko 5/1985 Lege Organikoaren –ondorengo zenbait Lege Organikok aldatu dutena– 196. artikulua ezarritakoari jarraiki, Udalbatza osatzen den bilkura berean Alkatea aukeratu behar dela, bertan xedatutako prozeduraren arabera. Hauxe da prozedura:

- Hautagaiak izan daitezke hala onartzen duten Zinegotzi zerrendaburu guztiak.
- Hautesleak dira bertan dauden Zinegotzi hautetsi guztiak.
- Hautaketa egingo da txartel sekretu baten bidez, eta bozketa bakar batean.
- Aukeratua izango da botoen legezko gehiengo absolutua lortzen duen hautagaia; beraz, 7 boto beharko dira gutxienez.
- Bozketa honetan ezin hautagaik ez badu gehiengo absolutua lortzen, automatikoki izendatuko da Alkate boto gehien lortu duen zerrendako burua den Zinegotzi hautetsia.

Alkate hautagaitzarako aurkeztu dira ondorengo zinegotzi hautetsiak:

- José Miguel Santamaría Eceiza.
- Igor Eguren Izagirre

Sukia andreak uko egin dio hautagaitzari. Idazkariak Ordizia Orain zerrendako bigarren zinegotzia den Sanz jaunari galdetu dio ia hautagai izan nahi duen eta honek ere uko egin dio.

Dubreuil jaunak uko egin dio hautagaitzari.



Idazkariak txartel bana eman dio hautesle bakoitzari, eta adierazi die bertan idatzi behar direla alkate kargurako bozkatzen duten zinegotziaren izen-abizenak, eta ondoren, eman zaizkien gutun-azaletan sartu behar dituztela txartelak.

Behin txartel guztiak jasota, botoen zenbaketa egin da. Jarraian, Lehendakariak ozen irakurri ditu txartel bakoitzean Alkate kargurako proposatutako zinegotziaren izen-abizenak. Hauexek izan dira bozketaren emaitzak:

- José Miguel Santamaría Ezeiza jauna: 6 bozka.
- Igor Eguren Izagirre jauna: 5 bozka.

Inork ez duenez gehiengo absolutua lortu, Idazkariak jakinarazi du, aplikagarriak diren araei jarraiki, hauteskunde egunean zerranda bozkatuena izan zenaren buru den EAJ/PNVko JOSE MIGUEL SANTAMARIA EZEIZA hautagaia bihurtu dela, automatikoki, Udal honetako Alkate.

Horren ostean, Jose Miguel Santamaria Ezeiza zinegotzi hautetsiak Udaleko Alkate kargua onartzen duela adierazi du, eta hauteskunde legeak ezarritako legezko formularen arabera agintza egin ondoren, kargua hartu du Udalbatzaren aurrean, honek ematen baitizkio legezko xedapenek egozten dizkieten eskumen, eskubide eta betebeharrak guztiak.

Ondoren, hitza hartu dute eta udalbatzarrean dauden herritarrei zuzendu, Igor Eguren jaunak, aurreko legealdian alkate izandakoak, eta Jose Miguel Santamaria jaunak, alkate gisa.



Azkenik, Alkate jaunak bukatutzat eman du bilkura hamabiak eta hogeita minutu direnean, eta, hain zuzen ere, bilkura honi dagokio nik, Idazkariak, egiaztatzen dudana akta hau.